

## Madriren menpe

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-08-25: 3.

Alderdi sukursalistek betidanik egin dute eskola gure artean. Ikuspide honen historia luzea da, baina neronek gogoan dut gerratean eta gero erbestaldian PSOE eta PCEko kide euskotarrek bere buru sozialista eta komunista espainolekin izan zituzten istiluak. Paperean ongi funtzionatzen zuen ideologizazioak huts egin zuen gerrako gordintasunak euskal izaerak frogan jarri zituenean, orduan portaerak geratu baitziren azken finean; Agirrereren inguruan jokatu zuten leialtasunak, Eusko Jaurlaritzako buru bezala, eta ez PSOEn gogora, nahiz eta orduan ere Madrilek bere zentrabidearen diziplina ezarri, gaur Nafarroako PSOEn buruzagitza estatu burutik *Gestora* baten bide antzuan ezarri duten bezala, eta Rodriguez Galindo jenerala eta CESIDeko paperen arazoak lehertu direnean hemengo agintariak Madrilera plegatu dituztenean. Hau da PSOEek eta PPK diziplina handiz ezartzen dakiten lehea lehen eta orain. Hemengo kide batzuek jakin dute hasieratik morrontza hau asumitzen, hortik bizi dira!, beste batzuek lehen aldiz utziko diote bere buruekin jokatzeari, baina denak du hasiera.